

ARDURAZ...

Euskalerriko Udal-Batzak, Lekeitio, Ordizia, Mundaka... eta toki orreitarako erritarrak arduraz asi dira, len Yugo-slabia izan zan eta orain anai-arteko gudan dabilzan lurraldeko Bosnia'tarrak artzeko. Lurralde aretatik iges eginda datozen atzerritarren alde laguntasuna emoteko eskaria egin dabe. Idaz-lan au idazten dogun une onetan arazoak ugari dagoz, eta diru-arazoak be oraindiño erabagi barik. Gizabideko lan eder oneri eragozpen aundiak agertzen jakoz.

Asmakizun au zorrotza ta arduratsua da: negu latza urreratzen jakun une onetan, ango bizikerea dala-ta zurrumuru txarrak eta nasketa bildurgarriak eldu dira gure be-larrietara. Lurralde aretan antxiñakoa dan bateratu-eziña gaiñeratu da orain. Yugo-slabia'ko lurraldeetan bizi diranak errukarri agertzen jakuz.

Egoera onek Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko udal batzutan kezka larriak sortu dauz eta or daukaguz erri adoret-suak egoera orretan dagozanai laguntza eskintzen: Lekeitio, Mundaka, Ordizia... Bozniatarrai laguntza eskintzeko eskaria egin dabe.

Eta udal-Batzak egindako eskintzak ondo agertzen dau abegi ta txera ona, eta euren etxe-barruan ango atzerritar-rrak artzeko gertu agertzen dira.

Orretarako, trebeen eta gogo-iztilarien argibideak bi-llatzen dabez eta emon be egingo jakez, laguntza au al danik ondoen, kalterik egin barik, eskiñi dagien.

Zori txarrez, erabagi oneik egokiro artzeko, burokrazia oiñarri dala, gertakuntzak asko luzatzen dira. Or azpi-egitura egoki bat sortu nai da eta zeregin onek ekintza bete-tea atzeratu egiten dau.

Orrez gaiñera, ekintza aurrera aterateko, España'ko agintarien baimena eta Yugo-slabia laterriko buruzagiena bear dira eta gero etorri bear diran sendien baietza.

Orrelan ba, emengo erritarrak eta Udal-Batzak euren gurari ona agertu arren, ezin jakin ekintza ori noiz eta zelan betetuko dan. Orrelan esan dau argi ta garbi Bil-bao'n Cear'eko buruzagi batek. Ekintza aurrera eroan bear

dabenak, orretarako sortzen diran erakundeakaz artu-emonetan jarri bearko dira.

Ori beteten dan artean, bizkaiatarrok jakin dagigun gure artean milla baiño geiago dirala Irugarren Munduko umeai laguntzen dautsen sendiak, baiña gai oneri buruz datorren illeko ZER aldizkarian idazlantxu bat idatziko dot, nire lagun dodan margolari batek egingo daustan margo-irudi eder bat ondoan dala.

Izan dagigun guztiok beti gogoan, iñon aitzu barik, az-keneko epai-egunean Epai-kari Nagusiak esango dauan berbea: "Sartu zaiteze Jaunaren atsedeen-lekura".

Azken-oarra: Nik idazlantxu au idaztea amaituta DEIA izparringian irakurri dot, Bosnia'ko talde batzuk Euskalerrira etortea onartuta dagoala eta geroago beste iz-parringi baten Mundaka'k ogei Bosnia'tar igeslariak artu-ko dauzala, sei illebeterako.

LETONA



*Jesus etorri jakun
Danok askatzeko.
Gabon oshatze n dogu
Au gogoratzeko.
Baña urte danetan
Jazo egiten jako,
Aurkitu artzain gitxi
Ta Herodes asko.*

*Urtea joan eta
Urtea etorri,
Beti Gahon-jaietan
Dogu Urtebarri.
Diñogun lez ha'gara
Zorion egarri,
Besarkada bat emon
Guztiok alkarri.*